48 26

ORDUÑAKO BEREZITASUNAK

Orduña Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerri bat da. Bere berezitasuna Arabako eta Burgoseko udalerriez inguratuta dagoela da. Horrenbestez, Bizkaiko exklabe bat da.

Horrez gain, Historiak hiri titulua onartu dion Bizkaiko udalerri bakarra da. 33,6 km2-ko hedadura dauka eta 4.200 biztanle ditu, gehienbat, hirigune nagusian murgilduta, nahiz eta bestelako hirigune txikiagoak eduki, besteak beste, Lendoño (Garaia eta Behea), Belandia eta Mendeika, Ruzabal Batzordeari atxikitako eta gaur egun oraindik entitate txikiagotzat aitortzen diren herriak. Azken lurralde horiek, guztira, 17 km2 inguru biltzen dituzte, hau da, Orduñako udal mugartearen erdia. Oraindik indarrean dagoen landa bizitzaren premietara egokitutako antolamendua dute. Haren idatziak, tradizioaren arabera, Belandiako elizaren kutxa batean gordetzen ziren, lau giltzez itxita. Aurreko garaietan, bilerak haritz baten oinean egiten zituzten. Batzordeko bosgarren mendeurrena bete zenean, aspaldiko garaietako ohitura horren oroimenez, Gernikako zuhaitzaren ondorengoa zen haritz bat landatu zen.




Orduña eta La Cerca de Villañoko kokapena, Araba eta Bizkaiari dagokienez.



Orduña hiria. Hirigune nagusia.



Lau giltzez itxitako kutxa irekitzea, Belandiako elizan. Bertan, tradizioaren arabera, Ruzabal Batzordeko dokumentazioa gordetzen zen. (Iturria: Irekia).



Itzalen mapa 2012. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco, geoEuskadi.

Bertan, Orduña udalerriko hiriguneak gainjarri dira.

1. Orduña.


Ruzabal Batzordea osatzen duten hiriguneak:

2. Lendoño Behea.
3. Lendoño Garaia.
4. Belandia.
5. Mendeika.

geo euskadi



Lendoño Behea.



Lendoño Garaia.



Belandia.

2015 ortoargazkia. Iturria: Eusko Jaurlaritza; geoEuskadi.



Mendeika.

Berariazkotasun hau nahikoa ez izanik, udalerriak, hein berean, XVI. mendetik, exklabe bitxi bat dauka Burgosen probintzian “La Cerca de Villaño” izenekoa, Orduñako hiri gune nagusiaren mendebaldetik 9 kilometrora kokatuta, Villaño alkate-auzoan (S. Martín de Losa udalerria).

5.000 m2-ko hedadura dauka bakarrik. XX. mende erdialdera arte, Orduñako alkatea urtero “La Cerca”-ko mugarri guztietatik igarotzen zen. Villañoko hamaika etxeetatik, bakar batzuk “La Cerca”-koak ziren soilk. Gaur egun, hutsik dago, baina iraganean, etxe hauetan jaiotzen zenak Bizkaiko foruek eskaintzen zituen abantailei atxikitzeko eskubidea zuen, besteak beste, zerbitzu militarrez salbuetsita egotea. “La Cerca”-ko gaur egungo estatus juridikoa nahiko anbiguoa da.

Gehiago jakiteko: La Cerca de Villano /Jesús María Garrayo. Boletín de la R. S. B. de Amigos del País, 1994, p. 197-208.



“La Casa de la partera” (emaginaren etxea) etxeko hondakinak. Diotenez, emakumeak erditzera iristen ziren etxe honetara, jaioberriek Bizkaiko foruei atxikitzeko eskubidea izateko. UTM 30N ETRS89 // X: 489971 m // Y: 4757425. m.